

ZONBISORGINAK

Argia Akarregi
Ondarroa, 13 urte

1654.urtean Euskal-Herriko herri txiki baten 10 ume jaio ziran abenduaren 1etik 10era, egunean bat. Ume guztiak neskak ziran eta ez zan izan gauza ona, jendea “superstiziosoa” zalako. Hamar familia horreek herriko jende guztiak mesprezatu egiten ebezan. Neskak, hasten joiazan heinean gurasoak eta familiakoak ere mesprezatu egiten ebezan. Neskak, lagun egin ziran eta danak ziran altura bardinekoak. Uleko kolorea be danak baltza. Herrian egoan eskolara be ez eutsien itzi sartzen eta gurasoak etxetik kanpora bota ebezan. Oso arraroa zan, ze gauza guzti honeck egun eta ordu berean gertatu ziran. Hamar neskak kalean aurkitu ziranean ez ekien zergaitik bota ebezan etxetik. Neskak 15 urte eukeezan. Ez ziranez nagusiak, ezin izan eben etxe batera joan bakarrik bizitzeko.

Bitartean alkatea eta herrikoak pentsatzen egotzan nola hilgo ebezan neskak. Batak esaten eban ez hiltzeko, herritik botatzeko. Besteak urkatzeko.

Azkenean alkateak erabaki eban:

– Neuk esango dot zer egin: zuek gurasoak esan etxera joateko, euren errua izan dala eta parkatzeko. Gero, afaldu ostean mendira eroan. Han baso baten gure ehiztariak hilgo dabez eta lurperatu egingo doguz.

Esan eta egin. Gau horretan, neskak etxera

eroan ebezan, afaldu eben eta paseatzera joiazan arrazoiagaz mendira eroan ebezan. Bertan hil eta lurperatu ebezan, kaxa baten sartuta eta panteoian, izenagaz, urteagaz... Baina inor ez zan konturatu basoan zehar nor ebilen. Andrazko zahar bat zan basoan bizi zana eta danagaz konturatu zan. Bera sorgin bat zan. Neskak berbiztea okurritu jakon. Horretarako urte asko behar izan eban. Liburu askoren tartean ibili zan eta gauzak ondo pentsatu ebazan. Bere arrazoa herriko jendea mendekatzea zan, berari bardina egin eutsielako, baina ez hil, bera bizkorragoa izan zalako eta mendira ihes egin ebalako. Baina arazoa egoan. Andreak hamar neskak berbizteko sorgin bat behar eban eta ezagutzen eban sorgin bakarra bera zan. Horregaitik, berbiztueran bera hil egin behar zan. Prestatu eban formulaea, baina horretarako gauza asko behar izan eban: saguzahar baten begiak, txarri baten bihotza, neska bakoitzaren amaren ule bat eta garrantzitsuena, "Gaua izan behar zan eta ilargi betea egon behar zan". Andrea herrira jaitsi zan eta jakin ebanean nortzuk ziran nesken amak, etxeetara sartu eta uleak orrazietatik hartu ebazan. Dan-dana prest eukan, baina gaua faltatzen jakon eta gau hori ez zan izango hilaren azken eguna arte. Heldu zanean eguna, hartu ebazan gauzak eta neskak lurperatuta egozan lekura formulearen tanta bat bota eban eta beste dana, berak edan eban. Bost minututara tanta bota eban lekua apurtzen hasi zan eta neskak lurretik urten eben, baina andra desagertu egin zan. Neskak sor-

ginak eta zonbiak ziran. Normalean zonbiak ezin dira hil, baina neska honeek hil eitekezan. Andreak etxean eskutitz bat itzi eutsien, zer egin behar eben ipinten ebana eta dana ulertu eben. Abenduaren leian jaio zana burua zan, eskutitzean ipinita egoan eta berak hartzen ebazan taldearen eginbeharrak eta esan eban:

– Ni naz burua eta herriko jendea mendekatu behar dogu.

– Bai, baina zelan? -esan eban beste batek.

– Eskutitzean ipinten dau, guk jateko izakien barruko energia behar dogula, orduan herrira bajatuko gara eta ahotik xurgatuko deutsegu energia. Jende guztia hilgo dogu eta gu herriaren jabeak egingo gara; energia xurgatzen ez badeusku izten, geure botereak erabiliko ditugu.

Lehenengo bi gazteenak jatsi ziran herrira, baina besteak ere arin hasi ziran jaisten gose zirako. Herriko jendeak, gorpuak aurkitzen ebazanean, ez eban ulertzen zer gertatu jaken. Gorputzetatik azal hutsa geratzen zan oihal bat moduan. Egun baten, bi andra kalean zehar joiazala, nesketariko bat biak jatera joan zan, baina andrak eza-gutu egin eben. Andra bat eskapatu egin zan eta alkateari esan eutsan dana. Alkateak esan eutsan neskak ezin zirala bizirik egon eta horreek bere burutapenak zirala. Baina egunak joan eta egunak etorri, gorpu gehiago agertzen ziran. Alkateak ez ekien zer egin. Orduan neskak lurperatu ebezan lekura joan ziran, eta egia zan: “Panteoia apurtuta egozan”. Herrikoek ez ekien orain neskak zer-

tzuk ziran eta zelan hilgo ebezan eta herriko andra zaharrenak esan eban:

– Ni herriko zaharrena naz eta istorio asko dakidaz gauza arraroei buruz, neska horreek zombiak dira, baina sorginak ere izan daitezke nire ustez, zombisorginak dira.

– Eta nola hilten dira? -esan eban alkateak.

– Sorginak sute baten hil daitezke, baina zombiak, ez dakit.

– Ahalegindu egingo gara, sutean hilten -esan eben danak.

Egun horretan, neskak bajatu ziranean eta jatera joan ziranean, harrapatu ebezan eta erre ebezan. Suteko hondakinak uretara bota ebezan, baina herrikoak ez ziran lasai geratu eta jendeak esaten eutsan alkateari, gauetan zarata arraroak entzuten eta gerizpeak ikusten ebezala kaleetan zehar.